

Kirikoketa-jaia, sagar-jotzearen doinu

Tolareko ohola eta sagarra jotzeko mazak edo pisoiak erabiltzen dira hots-tresnatzat edo bestela esanda, lan tresnak dira erabilitako soinu-tresnak

AURTENGO SAGARDO EGUNEKO BERRIKUNTZETAKO BAT KIRIKOKETA IZANGO DA. Untzaga plazan, txalaparta eta tolarearekin batera, Kirikoketa ezagutzeko aukera izango dugu.

Zer da Kirikoketa

Sagardoa egiteko sasoian, sagarra puskatzeko lanaren bukaerako jaia da. Kirikoketa-jotzea, funtsean, laneko tresnek, mazek, pats-oholak jotzerakoan egiten duten soinua da (hitz onomatopeikoa). Kirikoketa lanean erritmoari eusteko sortu zen, lana eramangarri egiteko. Eta horrela sortu zen, kirikoketa bera musika-tresna gisa. Berre kantuak ere baditu.

Lana egiteko tenorean ez ezik, lana bukatutakoan, etxeko atarian jotzen zen,

gainerako bizilagunei lana bukatu zela iragartzeko, eta hori festa-giroan egiteko.

Sagardoa egiteko lanean ma-

kinak sartzearekin, eta batez ere sagarra xehetzeko makinak sartu zirenean, galtzen joan zen kirikoketa-doinua eta jai bera, ia-ia desagert-

tzeraino. Baztanen, baina, eta bereziki Arizkunen, ohi-tura hori berreskuratzeko eta zabaltzeko lan handia egiten ari da azken urteotan.



Musika tresna hau sagardoa ekoizteko garaian sagarrak prentsatzeko prozesuan erabilitako lanabesetatik dator.



Euskal musika tresna eta kirol askoren antzera lan jarduerekin loturik jaio zen. Musika-tresna hau zehazki sagardoa ekoizteko sasoian sagarrak prentsatzeko prozesuan erabilitako lanabesetatik dator. Lan hau burutzen zuten gizonek 8 egun inguru igaro ohi zituzten, amaitzean herriko enparantzan elkartu eta lanerako erabilitako lanabesak eskuan hartuz lan bukaera ospatu ohi zuten, kirikoketa joz. Honako doinu hau abestu ohi zuten: "Kirikoketa, kirikoketa, kirikoketa, koketa, koketa, sagarra jo dela, sagarra jo dela, sagarra jo dela, jo dela, jo dela, jo dela".



Nafarroako iparraldeko Bortzirriak eta Baztan eskualdeetako biztanleek mendez-mende musika tresna hau jo izan dute, jada 1920ko hamarkadan galtzorian zegoelarik. Halere, euskal kulturak jasandako berpizkudeari esker eta 1960ko hamarkadatik aurrera gai honen inguruan euskaltzale eta kulturazaleek egindako berreskurapen-lanari esker, musika tresna erabat ezezaguna izatetik, berpizkundera iragan da, nahiz eta oraindik ere txalaparta baino maila apalagoa izan.

